







Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/9/4 | 307



	Albiztur eraikitzen
	Larraitzen aldeko apustua
	Jan, estresik gabe
	Galtzaundi aldizkariaren diseinu berria
	Eneko Lasari elkarrizketa
	Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Iosu Iztueta,
bizitzaren
bidaiaz



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: P^o San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 587



AMAIA ETXETXIPTA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
.....
OBESITATEA
.....
NUTRIZIO BERREZIKETA
.....
ARIKETA FISIKOA
.....
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2^a ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

JANTZIAK

OSKI

oiñetakoak

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264

3 hilabetetik 16 urte arte





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Irailak 18, Martxaundiren doinuak Trianguloan

Apirilean egin zen Martxaundiren V. aldian parte hartzeko deialdia. 10 musika taldek bere egin zuten proposamena, eta ekainean estudiara sartu ziren euren kantua grabatzera. Etxeko lanak burututa, egiten duten musika jendeari erakusteko ordua iritsi zaie parte hartzaileei. Hilaren 18an Trianguloan eskainiko duten kontzertuarekin eta ordurako eskuragai izango den diskoarekin egingo dute hori.

8-11. orrialdeak

“Hogeita lau urterekin, gu baino zaharragoak ziren hogei lagun hartuta, basamortu erdian 400 ur bidoi eta beste hainbeste gasolio gordeta sartzin ginela oroitzean, halako korapiloa egiten zait. Beti lortzen genuen itzulerako bidea egitea, baina gauzak okertu zitezkeen”.

Elkarrizketa: Iosu Iztueta

16-18. orrialdeak

	Iritziairen leihoa: Virginia Etxarri eta Antton Izagirre	4-5
	Normalizazioa: hizkuntza eskubideen urraketak	6-7
	Eskualdeko albisteak: Albiztur eraikitzen	12-13
	Eskualdeko albisteak: Aralarko ataria txukuntzen	14-15
	Koxk: Jan, estresik gabe	19
	Kultura: Galtzaundi aldizkariaren diseinu berria	20-21
	Kirol saltsa: Eneko Lasa arrantzaleari elkarrizketa	22-23

61 urteko emakumeak makila astindu eta trukean 4 urte espetxean



Virginia Etxarri Ikaslea

4 Gizarte honetako boteretsu bat baldin bazara hau irakurtzea ondo etorriko litzaizuke zer nolako astakeriak egiten dituzuen jakiteko. Boteretsu hauen menpe zarela pentsatzen baldin baduzu, mesedez, irakurri, agian zuri ere gerta dakizuke eta.

Betidanik indarra duenak ahula zapaldu du. Indartsu eta boteredunen ahotsak ahulak direnen ahotsengandik gainjarriri dira. Eta horregatik, zerbait salatu behar baldin bada gizarte honetan (ahots txikien bitartez baldin bada ere), boteretsuen ustetan gainontzekoengan jardun dezaketen injustizia egoera da.

Injustizia da Consuelo 61 urterekin inolako deliturik egin gabe, soilik bere herriaren bandera harrotasunez erakustegatik, kartzelera joan behar izatea.

2007ko irailean gaude. Jai usaina izkina guztietan nabari da. Astebete exkas falta da herriko festak izateko, eta herrietarrak pixkanaka giroan mur-

giltzen doaz. Novena garaian ohituraz herritarrak Sagrarioko Ama ermitara jotzen dute, hau baita populua biltzen duen gunetariko bat.

Erima Lizartza amaieran dago eta bertara iristeko herriko karretera nagusia igaro behar da. Ondorioz, herritarren begi aurretik kotxe errenkada bat pasa da, espero ez zen auto errenkada. Bide hau egin dute Begoña Pereira zinegotziak eta bere sekutuak-ertzainek, bizkartzainek eta beste kide politikotzatzen.

“Gonbidatu ez diren atzerritarrak” iritsi direnaren albistea segituan zabaltzen da herrian zehar eta zenbait lizartzarrek usetekabeko bisita honen aurrean

beraien ezinegona azaltzea erabakitzen dute. Pereira anderea ez da ongi etorria Lizartzan.

Bertan bildu direnen artean 61 urte dituen Consuelo dago. Andreak ikurriña goialdean zintzilik duen makil bat astintzen du ezker eta eskuin aldera gainontzeko herritarrak aldameanean dituelarik.

Giroa berotzen da eta hoztu ere bai, zinegotzia herritik alde egitean. Krispazio minutuak pasa eta atzerritarrak Lizartzatik alde egin ostean baretasuna itzultzen da.

Egunetara zinegotzi hartatik ezer ona espero ez zitekeen denuntzia sorta iristen da. Horien artean Peio Olanoren “Otaola, vas a morir” esaldiaren ondorioz ezaguna bilakatutakoa.

Dena den, ni gehien arduratzen nauena Consuelo Agirrebarrena 61 urteko emakumea kartzelara bidaliko duen salaketaren sententzia da.

Gipuzkoako Auzitegi probintzialak 4 urteko espetxea eta 1800 euroko zigorra ezarri dio Consuelori, Begoña Pereiraren baieztapenek ziotenez Consuelo ikurriña eusten zuen makilarekin jotzen saiatu omen zelako eta bekainean urradura bat jasan omen zuelako. Harrigarriena da fisikoki gertagaitza dela Consuelok zinegotzia jo izana, auto handi bat baitzegoen bien artean. Eta gainera nahiz eta salaketan Begoñak urradura izan zuela esan arren ez dago horren inguruko inolako frogarik.

Consuelok Auzitegi Nagusian errekurtsu bat aurkeztu zuen

salaketa justua ez zela defendatuz eta Auzitegi Nagusiak, probintzian ezarritako sententzia onetsi eta apelazina zela helarazi zuen.

Bertan zeuden testiguen eta Consuelo berak ere inoiz jartzeko saiakerarik egon ez zela diote. Baina, dirudienez politikari baten hitzak herritar baten hitzak baino indar handiagoa du justiziaren aurrean, hala izan beharko ez balu ere. Boteredunak boterea ez duena zanpatzen du.

Nik susmo txarra hartzen diot honi. Honek guztiak erre usaina du.

Nire sentsazioa Begoñari Lizartzako herria ez zaiola gehiegi axola da. Are gehiago, nire aburuz, Begoñari, bere erruz 61 urteko emakume bat espetxean lau urte igaro behar dituela jakiteak ez diola loa kentzen esango nuke, hau lotsagarria bada ere.

500 biztanle baino gutxiago dituen herri batetan 402 herritarrek sententzia honen aurka sinatu arren, jakin ezazue boteretsuok eta boteretsu hauen-gandik zanpatuta sentitzen zaretanok, hau irakurtzerako seguraski Consuelo dagoeneko Martuteneko espetxean askatasunetik pribatuta izango dela kometitu den injustizi handi baten ondorioz. Boteretsuok eta zanpatuok, gutako edozeinek amaitu dezake Consuelorekin batera espetxean. Gizarte honetan morala, etika eta justiziak, barkatu, baina postuak galtzen ditu rankinean egunez egun.

Azken kafea gabe joan haiz

(Txato Agirre gogoan)

Gogoan al duk azkenekoz elkar ikusi genianean “kafe bat hartu behar diagu”- esan hiken- “bai, egon behar diagu -esania nian nik- eta opor osteko azoka egunerako hitzartu genian,. Badakik guk ,kafea, kalaka politikorako aukera bilakatzen genuela maiz, larunbatetako zerkausiko azokaren aitzakian. Han agertuko hintzen hi, erosketaz kargakarga eginda. Imajina zezakeat udazkenerako genituen asmo eta proiektu politikoetaz jardungo genuela. Nik, agian, zera esango nian, noski EAJ epel xamar eta noraezean ikusten nuela eta hik berriz Ezker Abertzaleak estrategia politikoak aldatu behar zituela ihardetsiko huen eta horrela, honetaz eta hartaz uda ondoko jarduera politikoari erreposoa egin ostean abertzaleen arteko elkarlanaren beharra adostuko genian, beste askotan egin izan genuenaren antzera.

Baina hi azken kafea hartu gabe joan haiz, presaka alde egin diguk, agurtzeko aukerarik ere eman gabe. Jakin nahi niked zenbat asmo, proiektu eta amets utzi dituan egitear. Baina ziur aski egin eta betetako ametsak ere asko izango hituen eta horien gozo-pozetan gogoratuko haugu aurrerantzean.

Gogoratzen al duk nola ezagutu genuen elkar ikastolako lanetan. Hi Ikastolako lehendakari hintzen eta ni sindikalgintzan, ikastolen etorkizuna erabaki behar genian trantze zail haietan. Ikuspegi desberdinekin baina bat egin genian erabakian.

Gogoratzen al duk geroago udaletxean udalgintza lanetan

bota genituen urteak. Ez genian denetan bat egiten(ezta komeni ere)baina adostasun politak ere lortzen genizkian maiz. Udalbiltzan bai, amets oparoak bizi izan genizkian elkarrekin. Nazio Eztabaidagunean ere arretaz jasotzen genizkian hire ekarpenak. Edera izan huen iraun zuen bitartean.


Uste diat bahuela halako aura berezi bat, estimatua egin hinduena.

Askok pentsa zezaketek aurkari politikoak ginela, baina aitortu behar diat lagun bat galdu duenaren saminez bizi dudala hire heriotza.

Han izan gaituk, hire hilku txaren aurrean azken agurra ematen hirekin udal-kide izan ginenok, han gogora ekarri dizkiagu elkarrekin bizi izandako pasadizo ugari, han gintuan hire ondoan. Hire alderdikide asko ere etorri duk. Ezker abertzalekoak hor etorri dituk azken agurra eskaintzera.

Hik berriz barrez hartuko huen hau guztia.

Orain hor joango haiz asaba zaharren baratzeke zelaietan, azken bailara luzea zeharkatuz. Honezkero topatu dituk bertso lagunak seguru, Xalbador, Lazkao Txiki, Mattin...imajinatzen haut haiekin kantuan...

Ongi dakik hi orain egiten ari haizen bide bera goiz ala berandu guztiok egin beharko dugula eta hagoen tokian hagoela ere, altxa ezak hesola luze bat eta ipini ezak ikurrina hire kanpalekuan, hala jakingo diagu non haizen eta aurkituko haugu azken igoaldian. 



Antton Izagirre
Irakaslea

Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka eta gu ere hire zain geundela esan zioagu ez hitzela aspaldi azaldu etxetik eta belatzean eseri gaituk denok erlojuak janez baina mezularia bidali diagu Alosko torrea eskilara luzetan beleak uxatzen ote hintzen ikus zezan

gero kanpaiak entzun dizkiagu zakurrak zaunkaka orduan sortu haiz bidetik balantzaka eta hirekin aurrez aurre jarri garenean zerraldo erori haiz gure oinetan eta gorpu gogor hintzen udazkenaren tronoan hertsiz dizkiagu begiak adiosik ez eta goizaldean muxika hezur batetan sarturik o petit poete piroteknariak gabe lurperatu haugu baratzen. (Laboa/Atxaga)

Buzoia jartzea bi erakundeek 2009ko apirilaren 28an sinatu zuten hitzarmenaren ondorioa da

Hizkuntza eskubideen u

Buzoiak Galtzaundik eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak jarri zituzten Tolosa, Ibarra eta Villabonan. Tolosan eta Ibarra Kultur etxean daude eta Villabonan berriz, liburutegian.

Hizkuntza-eskubideen urraketan aurrean jarrera irmoa izan behar dugu euskaldunok. Nahikoa dela esateko garaia iritsi zaigu, ezin onar dezakegure hizkuntzan, bizitzeko eskubidea baliatu nahi dugunok oztopoak besterik ez izatea.

Buzoiak jartzearen arrazoi nagusia, euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeari

riak euskaraz bidaltzen, ahoz euskaraz hastean gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen dute, informazio komertziala gaztelania hutsez bidaltzen dute... Kasu horiek guztiak eta gehiago jasotzeko eta horiei irtenbidea bilatzeko, Tolosaldeko udalek buzoiak dituzte herritarren eskura, udaletxeetan, Kultur etxeetan nahiz beste udal instalazioetan.

Kexa jartzera joaten denak inprimaki batzuk izango ditu buzoiaren ondoan, betetzeko simple-sinpleak. Nolanahi ere, zailtasunik izanez gero edo argibiderik behar izanez gero, udal langileek beren prestutasun osoa adierazi dute, nahi adinako laguntza emateko. Gainera, udaletxeetara joaterik ez dutenek ere aukera izango dute kexak telefonoz jartzeko. Batetik, UEMako bulegora dei dezakete (943260372), baita Galtzaundiko bulegora ere (943 655 004), han biltzen baitira Tolosaldeko kexak. Bestetik, zuzenean Behatokian jar ditzakete kexak, Euskararen telefonora deituta (902194332). Azkenik, kexak web gunean jar ditzakete, www.euskararentelefonoa.com helbidean.

Kexa jartzeko, izen-abizenak eman behar dira, baina Behatokiak konfidentziasun osoz jokatu du, Datuen Babesaren Legeari jarraiki, eta ez diote inori emango kexa jartzailearen daturik. Hori bai, Udalerri Euskaldunen Man-

Hamaika urratzaile daude: agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dituzten erakunde publikoak, informazio komertziala gaztelaniaz bakarrik bideratzen duten enpresak...

komunitateak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak kexa behar den tokira helarazi eta haren segimendua egingo dute. Amaieran, UEMaren, Galtzaundiren eta Behatokiaren konpromisoa da kexaren nondik norakoaren berri ematea herritarri.

Egitasmoa orain dela urte bete jarri zen abian Tolosaldeko herri batzuetan, eta dagoneko arrakasta handia izan du. Horien artean, hamaika urratzaile daude: agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dituzten erakunde publikoak, informazio komertziala gaztelaniaz bakarrik bideratzen duten enpresak, jendea atenditzeko langile erdaldunak besterik jartzen ez dituzten merkataritza guneak, euskara hutsezko agiriak onartzen ez dituzten administrazioak...

Amaitzeko, Tolosaldeko herritar guztiak animatu nahi ditugu, udal instalazioetan jarritako buzoiak erabiltzera.

6



gatik edo jokatu nahi izateagatik izan dituzten eskubide urraketak salatzea da. Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzeko dituzten tokiak eta eragileak: erakunde publiko nahiz pribatuek ez dituzte agi-

rraketei aurre egin

K u l t u r e k i t a i d i a k

Hemen da II. Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa

100 lanetik gora aurkeztu ziren estreineko edizioan. Aurkeztutako komiki kopurua bakarrik ez, lanen kalitatea ere bikaina izan zen. Hori ikusirik, irailaren 9an, Ibarra Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak, elkarrekin aurkeztuko dute II. Ibarra Galtzakomik lehiaketa. Aurkezpena, eguerdiko 12.00etan izango da Ibarra Kultur Etxean.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak

Edonork parte hartu dezake komiki lehiaketan. Partaideak ordea hiru maila ezberdinetan sailkatuko dira: 12 urtetik beherakoen mailan; 12 eta 18 urte artekoen; edo 18 urtetik gora dituztenen kategorian.

Gaia librea da. Hori bai, ez da onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazista duen komikirik, ez eta intolerantziako jokabiderik eragin dezakeenik ere. Komikiak euskara hutsean idatzita egon behar du.

Komikiak eskuz edo ordenagailuz sortu daitezke. Bi kasuetan jatorrizko lana aurkeztu behar da. Ordenagailuz egiten dutenek, orri

bakoitzeko inpresio bat aurkeztu beharko dute Dina A-4 tamainako orrian eta gutxienez 300 ppp-ko kalitatearekin. Eskuz egindako komikiak ere Dina A-4 formatuko orrietan egin beharko dira. Txuri-beltzean edo koloretan egin ahal dira komikiak.

Lan bakoitzak, gehienez 4 orri izan ditzake. Komikia formatu bertikalean egin behar da. Lau orri horietan, istorio bat edo gehiago egin ditzake egileak. Bai komikiak eta bai bertako pertsoniak jatorrizkoak izan behar dute; hau da, inoiz argitaratugabeak.

Aurkezteko modua

Irailaren 10ean hasiko da lanak aurkezteko epea eta zabalik egongo da azaroaren 10era arte.

Komikia gutun-azal handi batean sartuta aurkeztu beharko da. Ez komikian eta ez gutun-azal horretan ezingo da egilearen izen-abizenik azaldu. Gutun-azalean, komikiaren izenburua jarriko da soilik. Egilearen datuak, (izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono

zenbakia) beste gutun-azal txikiago batean sartu beharko dira. Bigarren gutun-azal hau lehenengoaren barruan sartuta aurkeztuko da.

Sariak

Komikilari, marrazkilari eta hizkuntzalariez osatuta dago aurreneko lanak baloratuko dituen epaimahaia. Eurek erabakiko dute hiru kategoriatan zein den komikirik txukunena. 12 urtez azpikoetan komiki bilduma batekin eta marrazketarako materialarekin sarituko da irabazlea. 12 urtetik 18 urte artekoen mailan, diru saria izango dute lehen eta bigarren komikilaririk onenek. 18 urtetik gorakoetan kategorian ere diru jasoko dute irabazleek. Bestalde, saritutako lan guztiak bilduma batean kaleratuko dira. Sari banaketa abenduaren 11ean egingo da Ibarra Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean.



Ibarra Udalak



Galtzaundi



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Martxaundiren V. aldian parte hartu duten taldeak oholtzara igoko dira

Irailak 18

Martxaundiren doinuak Trianguloan

Leire Zubeldia

8

Apirilean egin zen Martxaundiren V. aldian parte hartzeko deialdia. 10 musika taldek bere egin zuten proposamena, eta ekainean estudiora sartu ziren euren kantua grabatzera. Etxeko lanak burututa, egiten duten musika jendeari erakusteko ordua iritsi zaie parte hartzaileei. Hilaren 18an Trianguloan eskainiko duten kontzertuarekin eta ordurako eskuragai izango den diskoarekin egingo dute hori.

1. Noiz eta nola sortu zen taldea? Nortzuk osatzen duzue?
2. Nolakoa izan da taldearen ibilbidea?
3. Zein musika mota egiten duzue?
4. Zeren inguruan dihardu zuen kantua?
5. Zer da Martxaundi zuentzat?

Caligula 400 edo 500 gau


1. Taldea Aida, Sandra, Nerea eta Baxik osatzen dugu. Tolosar bakarra Baxi da, beste taldekideak Irun eta Honadarriakoak gara. Orain dela 2 urte Aida, Baxi eta Agus kontzertuetan topo egiten genuen eta mozkortzen ginenean beti esaten genuen noizbait punk talde futurista bat egin behar genuela, horrela ustekabeen behin geratzen hasi ginen ibarrako lokal batean zarata egiteko. Orduan Antipatikss zen gure taldearen izena. Gero Nerea sartu zen baina Agusek taldea utzi zuen. Orain dela 6 hilabete Sandra sartu zen. Beraz orain laukote bat gara.

2. Oso ibilbide motxa da. Aurreko udaran 3 abesti grabatu genituen lokalean eta myspace zintzilikatu genituen. Geroztik oso poliki abesti berriak egiten dihardugu. Gure asmoa ordu erdi bat osatzea da zuzenekoak ematen hasteko.

3. Ez gaude estilo finko bati lotuak, nahiz nolabait estilo guztiak rockari zentzu zabalean dauden itsatsiak. Denetik entzuten dugu, harreta berezia etnikoa eta psikodeliari jarrita diogula.

4. Abestia ezinezko maitasun bati buruz dihoa. 1000 eta gau bat gehiago liburuko pasarte bat da.

5. Martxaundiri esker soinu teknikari oso on batekin grabazio esperientzi bat izan dugu. Oso ondo pasa dugu eta asko ikasi dugu berarekin. Martxaundi ekimena oso gauza interesgarria da, ea denon artean Tolosaldeako giroa pixkat suspertzeko balio duen!



Tolosako Garagardo azokan egingo da V. Martxaundiren aurkezpenkontzertua. Trianguloan atonduko den estenotokira igoko dira bosgarren edizio honetan parte hartu duten hamar taldeetatik zortzi. Bi taldek ezin izango dute bertan egon beste konpromiso batzuk direla tarteko. Baina irailaren 18koa ez da eskainiko duten kontzertu bakarra izango. Udazkenean zehar, eskualdeko herri ezberdinetan zuzenekoak eskaintzeko aukera emango zaie talde parte hartzaileei. Aurrerago zehaztuko dizkizue Galtzaundik aipatutako hitzordu hauek. Bestalde, aurkezpen kontzertuaren egunerako eskuragai egongo da V. Martxaundiren diskoa. Hamar euroren truke jarriko da salgai Tolosako hainbat tabernetan eta Galtzaundiren egoitzan bertan.

Dagoeneko ondo dakizuen moduan, eskualdeko musika talde hasi berriei bultzadaxo bat ematea da Martxaundiren helburua. Horretarako, aipatutako zuzenekoak eta diskoak gain, ondorengo orriak ere V. aldi honetako parte hartzaileei eskaini dizkie Galtzaundik. Hilaren 18an oholtzaratzen direnerako ezagutu ditzazuen balioko du.

Gargantas desgarradas Non nahi zaudela

1. Gargantas Desgarradas taldea, 2.004 urtean Tolosa inguruko 4 gaztek sortu genuen. Lagun eta garagardo arteko gauza izan zen. Laurak musika eta pentsakera aldeetik nahiko berdintsuak ginen, eta hitz soilez kexatu beharrean, beste modu batera kexatzen hastea erabaki genuen. Eneko, Ezkerra, Bittor eta Floresek osatzen dugu egun taldea.

2. Hasiera batean Pikuondo (Beasainean zegoen... oraindik ote?) etxe okupatuan entsaiatzen genuen. Urte bat pasa zenean lehenengo kontzertuak ematen hasi ginen. Garai horretan maketatxo bat grabatu genuen inoren laguntzarik gabe eta kitarjolez aldatu genuen. Orduan Flores sartu zen haize berri eta indartsua ekarriz. Momentu hartatik gaur arte kontzertuz kontzertu ibili gara. Momentu hontan Ibarren entsaiatzen dugu.

3. Bakoitzak bere influentziak izan ditu eta hori nabaria da. Baina estilo bat aukeratzekotan punk-rocka edo garena diote.

4. Herri honetan eta leku guztietan gaizki ikusiak gaude. Badakigu ez garena esenplu bat, baina ez gara zirkuko munstroak. Abestiak zera dio: "kanpora joaten garenean, sucio vasco diote; etxera bueltatzean punki zikina."

5. Martxaundi Tolosaldeko taldeentzako proposamen aparta da. Zeren herriko taldeei ez zaie laguntza izpirik ere ematen.



In De Kitxen Teoriaren kaosa

1. Badira hiru bat urte Otsabi elkar-teko sukaldean bateria bat azaldu zela, eta haren atzetik, Iñigo Orkaiz-tegi, Aratz Elkorro, Roman Goenaga eta Ander Lizaso, Inde Kitxen izan-go zenaren lau taldekideok elkartu ginen gutxinaka-gutxinaka.

2. Hasieran beste taldeen abestien moldaketak egiten genituen. Ez gara musika munduan oso jantziak eta tira, gure bizitzako taldeen abestiak joaz oso ondo pasatzen genuela ohartu ginen. Lagunak "sukaldera" etortzen ziren zertan ari ginen ikustera... eta konturatu orduko gure lehen kontzertuan elkartu ginen Otsabin bertan, lagun eta senideekin. Gutxinaka geure abestiak ere egiten hasi ginen eta nahasketa horri, umore puntu bat gehituz. Esaterako, gure "Txibiro!" abestia Izaskun Auzoko himno bilakatu dela esan daiteke!

3. Ez dakigu zehatz-mehatz. In-definizio egoera baten aurrean aurkitzen gara baina berdin zaigu. Azken batean gustuko dugun musika egiten saiatzen gara. Adibideak? Sex Pistols, Metallica, Oasis, Kuraia, Anari, Miguel Rios... eta beste hainbaten moldaketak egin ditugu. Gure abestiak, berriz, rock erakoak dira, baina bada heavy kutxua duenik ere, edota ska moduko "Txibiro" abesti dantzagarria...

4. Teoriaren Kaosa? Pertsonen arteko harremanei buruzkoa da, aurkitzen eta banatzen garen modu kaotikoari buruzkoa.

5. Tolosaldean afizioz musikan ari den hainbat talderekin batera disko bat osatzeko aitzakia paregabea. Eta talde horien guztien musika eskualdean behintzat zabaltzeko modu bat ere bada. Estudio batean abesti bat modu onean egiteko aukera... Gogoratzen duzue: "garai batean basoetan nagusi..." Kixmiren abestia? Guk Martxaundi 1en ezagutu genuen, eta pozarren gaude Martxaundi musika bilduma horien parte izatearekin.



Inside Etsipen erdoilduak

1. Orain dela bi urte inguru hasi ginen saiakeretan taldeko hiru lagun. Abeslari jator bat behar genuela eta OT-ko kabinetan kanporatua izan zen Alexi deitu genion. Gauza mamituz joan zen eta gaurdai-no darraigu ekinen. Partaideak Beñat, Ivan, Mikel eta Alex gara.

2. Egia esan oso ibilbide motza izan dugu. 3 kontzertu daramatzagu bizkarrean, baita bitxikeria bat ere: 1982an, OTI eta Eurovisioko hautatuen artean egon ginen Naranjito-rekin. Talde bezala zuzeneko gutxi eman baditugu ere, taldekideak ohituta daude jendaurrean, hamai-ka taldetan aritu baitira.

3. Zaila da azaltzen baina Radio 3 esaten dutenez POST-ROCK redo delakoaren oso antzeko musika omen da gurea. Ez dakit rockaren hurrengo edo pankraxiren bivo-liña den, baina garbi dago gutako bakoitzak gustoko duena edo sentitzen duena helarazten saitzen dela.

4. Top Secret, norberak eman beharko dio zentzua.

5. Martxaundi Tolosaldeako talde euskaldunei ematen zaien aukera on bat da.



1. Noiz eta nola sortu zen taldea? Nortzuk osatzen duzue?
2. Nolako izan da taldearen ibilbidea?
3. Zein musika mota egiten duzue?
4. Zeren inguruan dihardu zuen kantuak?
5. Zer da Martxaundi zuentzat?

Kräken Azken agurra

1. Duela urte bete edo elkartu ginen egun taldea osatzen dugun lagunak: Julen Piris, Julio Santos, Jon Ceberio eta Miren Ceberio gara.

2. Aipatu bezala, gure taldeak ibilbide motza du. Orain arte ez dugu zuzenekorik eman. Abestiak egiten eta entsaiatzen pasa dugu denbora labur hori. Taldekide batzuk ordea, aurretik beste talde batzuetan ibiliak gara.

3. Metal-a egiten dugu.

4. Lagun baten heriotzaren inguruan hitz egiten du gure kantuak.

5. Martxaundik gure estudioko lehenengo esperientzia bizitzeko eskaini digu, eta horretaz gain zuzenekoak eskaintzeko aukera.

Kantaflor Zakatan

1. Taldea duela bi urte sortu genuen, ahal zen bezala. Bost lagunek osatzen dugu: Aitor Yarnozek, J. Manuel Alvarezek, Anton Irastorzak, Juanan Sanchezek eta Josu Balzak.

2. Zer esango dugu gure ibilbideaz? Gogorra izan dela. Baina gustura gaude. Makina bat kontzertu eskaini ditugu, eta maketa ere atera genuen autoproduzituta.

3. Heavy-a! Kantu indartsuak dira gureak, eta soinu gogorra dutenak. Kantuak ateratzen zaizkigun moduan egiten ditugu.

4. Tolosaldeko beste taldeekin batera disko batean parte hartzeko aukera eskaini digu, eta bide batez, gure lana plazaratzeko balio izan du.



Laket Ordu txikietan

1. Duela hiru urte osatu genuen taldea. Hasiera batean betidanik ibili garen Aiora eta Maitanek txapelketak uztearen ideiarri etsu genion erromeri mundura zuzendu nahian. Erabaki hori Kristina Solanori, irakasleari aipatu eta bere bitartez Zigor Sagarna baxujolearekin harremanetan jarri ginen. Hilabete batzuk pasa ostean, baterria-jotzaile baten beharra sumatu genuen eta orduan inguratu zen Iñigo Muñoz Zigorren laguntzaz gure taldearen kide izatera eta urte bat pasatxo Jon Mari Beasain sartu zen taldean gitarrarekin.
2. Hasieran erromeri gutxi batzuk jotzen genituen, baina urteak igarotzen ari ziren heinean egutegia pixkanaka betetzen joan zitzaigun. Egun deiak ugaritzen ari dira. Uda partean okupatu xamar ibiltzen gara.
3. Azken batean egiten dugun musika mota erromerietan jo ohi dena izaten da, tradizioa mantenduz, fandango eta arin-arinak, Bals-ak, Rantxerak, Cumbia batzuk eta euskal musikaren historian gehien entzun diren talde batzuen abestien bertsoak ere bai: Akelarre, Hertzainak, Joxe Ripiau, Negu Gorriak...
4. Julen Zelaieta beratar bertsolari gazteari proposatu genion, guk emandako melodi baten gainean hitza jar zezan. Kantuak, bai bertsolari eta bai musikariak emaldia bukatu eta ordu txikietan etxealdera goazela, emanaldian gertaturikoari buruzko gogoeten inguruan dihardu "gaur ere lo gutxi, nekea, baina pena merezi izan duen edo ez..."
5. Tolosaldeko talde ezezagun eta hasi berriei eremu bat zabaltzen dio honelako ekimen batek eta hori benetan eskertzekoa dela iruditzen zaigu. Gainera, abesti bat grabatzeko aukera eman digute eta horren aitzakian egingo diren zuzenekoetan jotzeko aukera, benetan paregabea izan da esperientzia.



Nekro Espazioaren hautsa

1. Nekro talde orain dela 10 urte sortu zen. Gure koadrilako hiru lagun, denbora pasa moduan elkartzen hasi ziren, hauetako baten osabak zuen lokal batean. Orduan Jabi, Mikel eta Jokin aritzen ziren. Egun, Jabi Navarro, Mikel Izagirre, Niko Navarro eta Iker Zabalak osatzen dugu taldea.
2. Nekro taldearen hasieran, gitarra, baxua eta baterria soilik zeuden, eta epe luze batean bertsoak eta kanta propioen bat jotzen zuten soilik. Urte batzuk beranduago, taldearen ber-antolaketa gertatu zen: Teklatua, beste gitarrista bat eta baxu jole berria sartu ziren. Baterria berriz kantari moduan hasi zen, taldeari ikuspuntu berri eta zabalagoa emanez. Momentu honetatik aurrera kanta berrien konposizioan buru-belarri jarri ginen, eta lehenengo kontzertua lotu genuen Otsabi lokalean. Duela hiru urte izan zen hori. Geroztik kontzertu gehiago eman ditugu. Zuzeneko taldea gara.
3. Gure oinarria rock gogorra da, baina estilo ezberdinak nahastu eta jotzen ditugu: Pop-a, blues-a, heavy-a, ukitu absurdoak.... Jendeari asko harritzen dio zein estilo ezberdineko kantak jotzen ditugun.
4. Gizakiak bere buruari ematen dion garrantziaz dihardu; nola munduaren, unibertsoaren zentrotzat duen bere burua, baina benetan, puntu ikusiezin eta axolagabe bat besterik ez den.
5. Talde ezezagunak bultzatu eta promozionatzeko aukera ematen duen ekimena da. Gainera, grabaketa estudioarekin lehenengo kontzertua izatea esperientzia berri eta aberasgarria izan da.



Potentor Hemen gaude

1. 2004 urtean elkartu ginen, gustoko genuen musika jotzeko asmoz eta era hortan lokal bat bilatu, Tolosako Kiroldegiak patrosinatutako insonorizazio obra bat egin eta istorioa aurrera joan zen. Taldea hasieratik Aitor eta Xabik osatuta zegoen. Eta hortik galduta zeuden Niko eta mundua dominatzeko plan bat proposatu zuten eta taldea martxan hasi zen.
2. Hasieran, bertsoak egiten hasi ginen, konposaketaren sekretuak ikasteko asmoz. Aurrerago gure abestiak egiten hasi ginen, eta gaur egun, 5 urte geroago, gure abestien bertsoak egiten ditugu, ez baitakizkigu ondo jotzen... Tartean, Julio sartu zen baxujole modura, garai hartan bi kitarrako taldea ginelarik. Kontzertu batzuk eman ostean, Juliok taldea utzi eta maketatxo bat prestatu genuen 2006an.. Orduetik, taldea, izpiritu baten moduan desagertu eta agertuz ibili da gaur arte, kontzertu bat edo beste emanez. Gaur egun hasierako lau tipoak osatzen dugu taldea, mundua konkistatzeko plan berberarekin..
3. Heavy Metal-a!
4. Biolentziaren jabego absolutista eta tentsionamendu sistematikoaren mugari buruz.
5. Gure musika Tolosako beste taldeekin batera ezagutarazteko modu kitzikagarria da guretzat Martxaundi. Eta eskaini diguna aukera interesgarria deritzogu.



Zesuma Baiona

1. Zesuma taldea, 2009ko apirilean sortu zen. Ordura arte zenbait entsegu eginak genituen arren, taldeak ez zuen ez izenik ezta denbora motzerako planik ere. Zirt edo zart zerbaitetan hasteko garaia bazela iruditu zitzaigun, "zesuma" (edo denbora pasa) gelditzen baginen denborak ihes egingo zigula. Zesuma taldea honakook osatzen dugu: Ander Malbadi, Izaskun Leiza eta Alberto Garces. Askotan lagun izaten dugu Xabi Malbadi erritmo kaxarekin.
2. Lehenbizi Izaskun eta Ander hasi ginen zenbait afari, erromeria eta bestelakoetan jotzen 2005. urtean. Baina trikitixa eta panderoa, zenbait tokitan nahikoa eta gehiegi diren arren, zerbait gehiago erants-teko premia nabaria zen plazetan jotzean. Gauzak horrela Albertori proposatu genion gurekin entsaiatzea iazko udaran. Eta orduetik gaur arte, errepertoria zabaltzen aritu gara, Albertorentzat trikitixa mundu hau berria baitzen.
3. Batez ere trikitixarekin erlazionatutakoa: fandango, arin-arin, balsak, rantxerak, mexikanak... Baina saiatzen gara horretatik ere ateratzen, adibidez Irladanko eta Frantziako zenbait kanturekin borrokan ere aritu gara. Asmoa trikitixarekin zerbait berria egitea da.
4. Gure kantua erabat musikala da, ez du inongo letrarik. Baiona du izena, arrazoi askorengatik: Batetik Euskal Herrian dugun txoko politetako bat delako, agian hegoaldean ahaztu xamar dagoena. Bestetik, hitz jokoak gustuko ditugulako, eta "bai ona", gure kantari lausengu moduko bat eskaini nahi izan diogulako.
5. Gaur egun disko bat grabatzea oso zaila da eta zer esanik ez talde hasi berrientzat. Guk kantu hauxe genuen sortua eta Martxaundik berau grabatu ahal izateko aukera emateaz gain, gero jendaurrean aurkeztekoa ere luzatu digu.





Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra herritarren parte hartzearekin osatzen ari dira Albizturren

Herritarrek Albizturren e

Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra, (H.A.P.O) herrietako hirigintza arautzen duen lege nagusia da; Hirigintza motan, lurralde ereduan, ekonomian eta herritarren ongizatean eragiten du. Azken batean, tresna honek erabakitzen du herriaren eta herritarren etorkizuna. Horregatik, Albizturko Udalak, herritarrei eman die Plangintza berria osatzeko aukera.

Erredakzioa

Egungo Udala osatzen dutenek erabaki horri jarraipena eman diote, baina pauso bat harago emanez: Herritarrek izango dira Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorra egingo dutenak. "Herriari galdetu nahi izan diogu zer egin dezakegun Albiztur orain arte bezala mantentzeko, herri izaera ez galtzeko", azaldu du Brix Arrue Albizturko alkateak. Herri txikia izanik, legeak ez du behartzen hiri plangintza egiteko parte hartze prozesu bat zabaltzera. Baina Brix gidatzen duen taldearentzat garrantzitsua da herritarren ekarpenak jasotzea. "Sektore ezberdinen beharrak zeintzuk


Pausoz pauso

Uztailaren jarri zen martxan herritarrei beren herriaren etorkizuna erabakitzeko aukera ematen dien parte hartze prozesua. Lehenik eta behin, Udaleko teknikariek plangintzaren aurrerapena osatu zuten. Alkateak azaldu du zertan datzan erakusketa publikoan dagoen aurrerapenak: "Herriaren diagnostikoa da. Herrian dauden beharrak azaltzen dira bertan, plangintza berriaren helburuak zehaztearekin batera. Azken batean, hiri antolaketaz Udalak egiten duen proposamen bat da, herritarrek honen gainean eztabaidatu eta iradokizun berriak egin ditzaten". Uztailaren 24an egin zuten batzarrean azaldu zizkieten herritarrei aurre-proposamenaren nondik norakoak. "Oso gustura geratu ginen deialdiak izan zuen erantzunarekin. 70 lagun inguru hurbildu ziren, eta hori asko da Albiztur bezalako herri bantentzat".

Irailaren 25era arte egongo da zabalik iradokizunak egiteko epea. Aurrerantzean, batzorde ezberdinetan banatuta egingo dituzte ekarpenak. "Sektoreka bereiziko ditugu batzordeak: Gazteak, nekazari eta abeltzainak, kalean bizi diren bizilagunak, industria sektorekoak... Herritik kanpoko eragileei ere parte hartzeko eskatuko diegu". Hala nola, Tolomendi, Tolosaldea Garatzen eta nekazal sindikatuak. "Batzorde hauetan jasotako ekarpen guztiak bilduta, berriro erakutsiko

diren ez dakigu". Deialdi berezia egin dute jendeak plangintza berria osatzeko prozesuan parte hartu dezan. "Ez gaude horrelako gauzetan parte hartzera ohituak. Baina guk ahalik eta herritar gehienek ekarpenak bildu nahi ditugu. Herritarrek sentitu dezatela herria berea".

1996. urtean berritu ziren azkenekoz Albizturko arau subsidiarioak. Hauek zaharkituta geratu dira, batez ere tarte horretan lege berriak atera direlako, eta beraz, beharrezkoa da arauak legedi berriara egokitzea. 2006. urtean onartu zuen Albizturko udal taldeak arauak berritzea.



etorkizuna eraikitzen

diegu herritarrei. Konforme badaude, Udaleko osoko bilkuran argi berdea emango diogu plangintzari". Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du azkeneko hitza. Gipuzkoako Boletin Ofizialean argitaratzen den unean bertan sartuko da Albizturko H.A.P.O berria indarrean. Prozesu guzti hau amaitzeko dirudiena baino denbora gehiago beharko da. Alkateak azaldu duenez, legegintzaldia amaitu baino lehen jarri nahiko lukete dena martxan.

Udalaren proposamena

Hutsetik hastera baino errazago izaten da oinarri baten gainean eztabaidatzea. Horregatik egin dute udaleko teknikariek H.A.P.O berriaren aurrerapeana. Bertan, hiri antolaketarako hainbat irizpide proposatzen dira:

"Albiztur haranaren hondoan kokaturik dago. Ez du eraikitzeko zoru handirik. Horregatik, dagoena ondo baliatu beharra dago". Plano baten bidez azaldu du Udalak herriko eremu bakoitza zein erabilerarako bideratuko luken.

Lehentasan nagusienetako bat, herritarrei herrian bizitzeko aukera ematea da, etxebizitza eskubidea bermatzearekin batera. Honek ordea talka egiten du aurretik aipatutako ideiarekin. "Etxebizitza egiteko lurra okupatu beharrean, eraikin eta baserri zaharrak berrreskuratzea proposatzen dugu". Izan ere, Albizturren etxebizitza eta baserri ugari hutsik daude.

Albiztur eraikitzen

"Eraikuntzak egin beharko diranoski, baina ahalik eta lur gutxienez hartuz egingo dira". Etxebizitza hauek babestuak izango direla ziurtatu du alkateak. Herritarrek izango dute hauek eskuratzeko lehentasan osoa.


Santa Marina auzoa ere kontutuan hartuko dute H.A.P.O berriari. Albizturko auzoan etxe huts ugari daude, eta bertan ere berrikuntzak egin daitezke.

Industriari dagokionez, ez du aurreikusten egungo industriagunearen hedapena. "Herriko industriaren kontsolidazioa bultzatu nahi dugu, industriaren hazkunde masiboa baztertuz, eta aldi berean, jarduera industrialaren etorkizuna bermatuz".

Ekipamanduaren aldetik, ondo hornitutako herria da Albiztur. Baina baditu gabeziak, batez ere gizarte zerbitzuen alorrean. Saiaz mankomunitatearen barruan dago Albiztur. Mankomunitate honen bidez eskaintzen dira gizarte zerbitzuak. "Kontua da, lege berri batek gizartze zerbitzuetako zenbait prestazio beregain hartzea behartzen

duela Udalak. Mankomunitateko kide diren Bidegoian eta Errezilen eguneko zentruak zabaldu dituzte. Zerbitzua osatze aldera, Albizturren etxe tutelatuak eraikitzea proposatzen dugu".

Udalak egindako beste proposamenen artean, herriari komertzioa sortzearena dago. "Albizturren ez dago komertziorik. Erosketak egiteko Tolosara joatera ohituta daude herritarrek". Baina beste aukera bat da herriari bertan erostea. Hori bai, zerbitzu hau lehenengo sektorearekin lotuz sustatu nahi lukete Udalak, herriko baserriaren produktuari herriko komertzioan aterabide emanez.

Brixu Arrue alkateak argi utzi nahi du azalduetako guzti hauek Udalak egiten dituen proposamenak direla. Erabakia herritarrena izango da. "Ezinezkoa izango da denak gustura geratzea, baina ahalginak egingo ditugu". Albizturko herritarrei parte hartzeko deialdia eginez amaitu nahi izan du alkateak Galtzaundik egin dion elkarrizketa. 

Galtzaundi 307
09ko irailak 4

Beti Nahi
gaitasun

Garaian garaiko janariak
eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712



- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositu beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garbati, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Abaltzisketako Udalak Larraitzen aldeko apustua egin du. Horren adibide bat da laster amaituko duten ezinduentzako bidea

Aralarko ataria txukuntzen

Aralarko Natur Parkeak zazpi ate ditu. Horietako bat da Larraitz. Mendirako asmotan, edo besterik gabe, eguna igarotzeko pentsamenduarekin, asko dira asteburuetan Larraitzera hurbiltzen direnak. Jende guzti horri behar bezalako zerbitzuak emateko, lan asko egin du Abaltzisketako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ezinbesteko laguntzarekin. Une honetan, ezinduentzako ibilbide bat egokitzen ari dira.

Erredakzioa



Batez ere asteburuetan ibiltzen den jende andana ikusita, Abaltzisketako Udalak burubelari dihardu Aralarko atari aurrea txukuntzen. Larraitz zerbitzuz hornitzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Zuhaitzietan otorduak egiteko mahaia jarri zituzten, aparkaleku handi bat egokitu zuten, komun publikoak zabaldu zituzten, baita aterpea eraiki ere. Guzti hau ezin zuen Abaltzisketako Udalak beregain hartu, eta ezinbestekoa izan du Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza. Ahalegin guzti hauek helburu batekin egiten ari dira Jesus Mari Gorostidi, Abaltzisketako alkatearen hitzetan: "Larraitzera etortzen denari bertan geratzeko aukera eman nahi diogu. Ez dezala joan-etorri azkar bat egin. Eguna pasatzeko leku atsegina batean bihurtu nahi dugu Aralarko atea". Lan ugari egin dituzte bai, baina oraindik ere geratzen dira egitekoak.

Ezinduentzako bidea, laster zabalik

Ezinduentzako bidea, Abaltzisketako Larraitzen alde egin duen apustuaren beste adibide argi bat da. Txindoki magaleko udalerrian, aspaldikoa da herrigunetik Larraitzera joateko oinezko bidea egiteko asmoa. "Izan ere, herritar ugari ibiltzen da egunero pasioan. Biderik ezean, errepidetik ibiltzen dira, eta arriskutsua geratzen da. Eta zer esanik ez haurrentzat", dio Gorostidik. Errepidearen ezker aldean, garai bateko herri

-bidea berreskuratuz egin nahi zuten bidegorria. "Aldundian begi onez hartu zuten gure ideia, baina beste proposamen batekin erantzun ziguten: Oinezkoentzako bidea soilik ez, ezinduentzat egokituak ibilbidea egingo dugu, eta errepidearen eskubian geratzen den aldean". Dagoeneko lan handienak eginda daude. Irailaren amaierarako prest egongo dela uste du alkateak. Dena den, jendea ikusten da bidean atzera eta aurrera eginez. Izan ere, ezinduek ez ezik, oinezko guztiak ere erabili ahal izango dute luxuzko azpiegitura hau.

Foru Aldundiak, Gipuzkoako lau natur parketan jarri nahi du ezinduentzako bidea. Arantzazun erabilgarri dago jada, eta Larraitzekoaz gain, Pagoetan eta Aiako Harrietan jarri nahi dute.

Kilometro eta erdiko ibilbidea da. Aikaten hasten da ezinduentzako bidea. Ohiko oinezkoentzako berriz, Abaltzisketako bidegurutzetik bertatik abiatuko da. Urritasun ezberdinak dituzten pertsonentzako egokitua egiteko, ekipamendu konplexua du ibilbide honek. "Alde batetik, ezin du %8ko penditza gainditu. Hau, gurpildun aulkian ibili behar dutenengan pentsatuta dago. Gradu baxuko malda bada ere, 20 metroz behin atsedenekuak egin dira, malda gune lau batean bihurtuz". Itsuentzako berriz, bidearen erdian zanga moduko bat jarri dute. Bastoiarekin zanga honi

jarraituz, bidea zuzen egin ahal izango dute. "Tarteka, panel moduko batzuk jarriko dira trabeska. Azken hauetan azalpen ezberdinak emango dira brailez idatzita". Ibilbideak bi begiraleku izango ditu eta paisaiaren deskribapena ere brailez azalduko dute. Ikusmena erabat galdua ez dutenentzako lagungarri gisa berriz, zoruko argia jarriko dute bidearen bi aldeetan. "Argi jarraia da hau, iluntzen hasten denean pizten den horietakoa". Bidearen bi aldeetan noski, baranda jarraia jarriko da. Honek, hamar metroko poste sendo bat eramando du. Poste hauetan norabidea adierazten duten argiak jarriko dituzte. "Badira pertsona batzuk, orientatzeko arazoak dituztenak. Hauentzako, Larraitzetik Abaltzisketara


eta Abaltzisketatik Larraitzerako norabideak bereiziko ditugu argi gorri eta berdearekin". Ezindu fisikoek arazoak izaten dituzte horrelako lekuetan patxadaz ibiltzeko. Horregatik, Larraitzek egingo duen eskaintza interesgarria izango da.

Etorkizun hurbileko beste asmoak

Ezinduentzako bidea amaitu, eta beste ibilbide bat egokitze lanekin hasi behar dute Abaltzisketan. Bigarren ibilbide honek Ibiur urtegia eta Larraitz lotuko lituzke. Oinez edo bizikletaz egin ahal izango da, eta 3 km inguru izango ditu. "Asmoa, Larraitz inguruan zirkuitu moduko bat egitea da, inguru hauek ezagutzeko aukera emanez". Espainiako Gobernuak diru-laguntza bat



onartuta du ibilbide hau egiteko. "Udazekenean hasiko direla aurreikusten dugu". Ea aurreikuspenak betetzen diren,

Azkenik, Larraitz-ko zuhaitzetan egokitu nahi duten parkeaz hitz egin du Abaltzisketako alkateak. "Ez da ohiko parke bat izango. Zuhaitzetik-zuhaitzera, pasabideak, sokak, oztopoak eta abar jarriko halako jolas-gune bat egitea da asmoa". Egitasmo honetarako ere diru partida gordeta dute. Guzti honekin batera, Ermita aurea txukunduko dute, zoruan plaketak jarri. Jatetxe eta taberna aureko aparkalekuak ere asfaltatu egingo dituzte. Orain leku atsegina bada, are atseginagoa izango da Larraitz; Aralarko ataririk ederrenetakoa. 

ANTZA

ZETA^S_I


MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219


Alaia

kafetegia


Gudari kalea, 10- Tolosa
Tel.: 943 652 643



Baserriko haragia salmenta zuzena

 686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



Tolosako División Azul garai batean, Txirrita ondoren eta gaur egun Gudari Kalea deitzen zaion 13. zenbakian jaio zen Josu Iztueta 1957an. Aita Berastegikoa eta ama Larraulgoa, baserri giroa gertutik bizitzeak natura eta gizakiaren lotura hobeto ulertzen lagundu dio. Duela berrogehitu bost urte, igande batean trumoia zetorrela eta, bazkalostean korrika belarra biltzera joateak sortzen zion sentsazioa, gaur egun Bolivia edo Marokon bizitzen du. Honelako bizipenek hunkitu egiten dute. Gogoan du Berastegiko festetan, hizkuntza arrotza hitz egiten zuten bere lehengusu beltzen berritasunak dantza eskean eman zion arrakasta.

Josu Iztueta ezkaratzetik barrura erabat euskalduna zen; baina eskola bidean, Berazubi-ko zubia pasa eta erabat erdaraz aritzen ziren garai hartan. Hamalau urterekin Kordobara joan zen ikasketak egitera, eta orduan erabaki zuen ez zuela inoren aginduetara lan egingo. Josuk zezen plaza inguruan, pilotan, futbolearen edo kaleko jolasean ordu ugari egin zituen. Futbolearen ona ez izatea abantaila izan zen berarentzat, kirol desberdinak jorrazteko aukera eman ziolako: Xarea, estropadak, krosa, iraupen eskia... Kirola, bera helburu baino, ondo pasa, lagunak egin eta bidaiatzeko bitartekoa bihurtu zuen. Espezializazioetatik ihesi, kirola,

jakintza eta bizitzaren ikuspegi osatu bat bilatzen ditu.

Gurean dena errazegi dugulako agian, baldintza gogorretan bizi den jendeak asko erakarri izan du: Groenlandia, Laponia edo Alaskako esperientzia gogorrek gogoan ditu. Bidaia ez du bi punturen arteko desplazamendu hutsa bailitzan hartzen: bidearen ingurunea, jendea... ezagutu behar dira. Angel Ortizekin batera Naiorbitarraren egitasmoari heldu zionetik, autobus zahar haren ibilbide luzean, Afrikako basamortuetan eta Amerikako Andeetako errepide mal-kartsuetan izandako bizipen muturrekoenak erakutsi diote bidaiatzearen alderik txarrena eta hoberena.

Josu Iztueta

“Bizimodu hau aukeratzean, eroso bizitzeari uko egin nion”

Felix Aiestaran

Herniorako igoera izan al zen zure lehen bidaia?

Beder atzi urterekin Her-niora igotzea espedizio bat zen guretzat. Hamahiru-hamalau urterekin Pirinioetara joatea izugarria zen, orain munduari itzulia ematearen modukoa. Gaur egun Kaliforniara joateko prestatzen dudan moduko maleta egiten genuen Belaguara joateko. Perspektiba aldatu egiten da. Ez nuke jakingo esaten zein izan zen nire lehen bidaia. Kordobara ikasketak egiteko hamalau urterekin joatea ez zen bidaia izan, deserriratzeko bat baizik. Neronek erabakita bidaiatzen dut. Aldiz, munduko jende desplazamendu handienak behartutakoak izaten dira: hondamendi naturalek, goseak edo gerrek eragindakoak. Halaber, bidaiatzea oso-oso gogorra da. Hemengo jendeak kapritxoz bidaiatzen du.

Azal ezazu nola sortu zenuten Nairobitarra?

Ni ez nintzen Nairobitarra joan, artean soldaduskatik libratzeko nengoelako. Intsumisio garaia iritsi aurretik, urtero prorroga egiten nuen. Nolabait, baldintzatutako askatasuna erosten nuen. Soldaduskatik libratzeko unibertsitatean matrikulatu nintzen. Urtean aurreztutako hamabost mila pezetatik, hamar mila, magisteritza, psikologia eta bestelako eskoletara joenez gastatzen nituen. Klase bat edo bestera kuriositateaz joaten nintzen. Pasaporte atera eta bidaiatu egiten nuen. Horrela hogeita zortzi urte bete arte. Halako batean, zorionez, zozketaz soldaduskatik libratu nintzen. Diruz independientea izatea erabaki nuen. Hamabost urte nituenetik egin du lan: enpapelatzen, fruituak biltzen,

eraikuntzan... Ikasketak ere aldi berean egin nituen papeletan injenieritza bukatuaz. Euskara klaseak ere eman nituen.

Gero, Anjel Ortiz eta biok, besteen oporrak lanbide bihurtu genituen. Besteen opor gogo gure beharra bihurtu zen. Geuk egiten genuena jende gehiagorekin konpartitu nahi genuen. Soldata finko bati uko egin eta gutxiarekin bizitzeari ekin genion. Diru gutxi baina gustura aritzea nahi genuen. Hogeita lau urterekin, gu baino zaharragoak ziren hogeita lau lagun hartuta, basamortu erdian 400 ur bidai eta beste hainbeste gasolio gordeta sartzen ginelarik oroitzean, halako korapiloa egiten zait. Beti lortzen genuen itzulerako bidea egitea, baina gauzak okertu zitezkeen.

Zer eskaintzen zenieten bidaiari eta bidaiariek zer eskaintzen zizueten zuei?

Besteen oporrak gure lana ziren. Ezin genuen ahaztu guk ere ondo pasa nahi genuela; baina guk ere gaizki pasa behar genuen besteek ondo pasatzeko: bolantea goizeko sei etan hartu behar bazen basamortuko harea hezea ez harrotzearen, egiten zen eta kito. Milioi bat kilometro egingo genituen, istripu asko ikusi genituen, baina ez genuen batere izan.

Europako bizimodu erosoan, zaila izaten da pertsona ezagutzea; aldi, bidaia batean edozein muturreko egoerak pertsona nolakoa den ezagutzeko aukera ematen du, onena eta txarrena. Nairobitarra giza portaeraren giza laborategia izan da. Mundua ezagutzera abiatu eta geure buruak elkar ezagutzen genituen. Autobusaren leihotik ikusten zena

harrigarria bazen, kristal barruan gertatzen zena (harremanak, moskeoak, ligeak, eskakeoak...) are harrigarriagoak ziren. Matxura ugari izan genituen eta Anjelek konpondu zituen denak; bera mekanikoa zen eta ni pintzea. Ataskoak, gaixotasunak, basamortuan galdu ere egin izan ginen. Hogeita bost bikote sortu ziren Nairobitarran eta agian, beste horrenbeste hautsiko ziren. Janaria, espazioa, norbere poltsikoko dirua sozializatu behar izaten genuen... Niretzat oso

zeropetik 55-60 gradura egon ginen, hil ala bizi. Gauetan dena barruan elkarri deika aritzen ginen ea aldamenekoa bizirik zegoen jakiteko. Hotzez hiltzea loak hartzearen bizipen antzekoa omen da eta... Beroz hiltzea gogorragoa izan daiteke. Muturreko bizipenik ez dugu izan, baina Djibuti 50 gradura egarri mingaina puztuta konponketa bat egiten aritzea ez da xamurra. Niri non hil berdin zait, baina gaixotuz gero, hemen hiltzea nahiko nuke.



"Nairobitarra giza portaeraren giza laborategia izan da".

garrantzitsua da giza harremana, baita eguneroko bizitzan ere. Hemen ondoegi bizi gara. Iraultza guztiak goseak sortzen ditu. Hemengo iraultzaile ohi ugari sistematan bete-betean sartuta dago.

Bidaiaren ametsa amesgaizto bihurtu al daiteke?

Hori hemengo gauzakin bezalaxe gerta daiteke. Bagenean Alaskako espedizioa gogorra izango zela, baina astebetez

Bidaiatzea bizibide hartzeak libre egiten al zaitu? Ez al du monotoniarik?

Ez du monotoniarik segurantzirik ez duelako. Hogeita bi urterekin banekien zer ez nuen izan nahi: eraikuntzako langilea, papelero edo euskara irakasle. Bizimodu hau aukeratzeko eroso bizitzeari uko egin nion (soldata eder bat, etxebizitza galanta...) Gutxiarekin bizitzen ikasi nuen eta Letxu Kaleko nire txokoa bizi naiz egun.



“Autobusaren kristal kanpoan ikusten zena harrigarria bazen, kristal barruan gertatzen zena (harremanak, moskeoak, ligeak, eskakeoak...) are harrigarriagoa zen”.

Prekariatateak erail egiten duela entzuten dudanean, haserre-
tu egiten naiz. Prekariatateak
ederki asko espabilatzen zaitu.
Hemen kapitalismoak ezin ho-
beto bizitzeko eman die bos-
tehun mila lagunei (bigarren
etxea, kotxe galanta...) Segur-
tasunak anulatu egiten zaitu
ordea. Berdin kobratzen denez
gezurrezko bajak ere hartzen
ditu jendeak. Gizarte honetan
espabilatua izatea ongi ikusia
dago. Pikareska hau ezkerretik
are hobetzat jotzen da patro-
nari kalte egiten zaionaren
ustean. Aukeratu nuen bizimo-
dua aldapa gora korri egin eta
korrontearen aurka igeri egitea
zela banekien.

Egungo reality show-en aitzin-
daritzat har daitekeen saioa ere
egin zenuten, Esako urtegi er-
dian baltsa kaxkar batean hain-
bat lagun jarrita...

Laurogeian UEUra joaten
nintzen lo egiteko furgoneta
zahar batekin. Psikologia eta na-
tur zientziako eskolak euskaraz
jasotzen nituen. Iruditu zitza-
idan istripu simulakro bat egin
genezakeela. Kamioaren kamara
zaharrekin baltsa ttiki bat egin,
janari pixka bat hartu, eta aste-

betez Esa urtegi erdian egon
ginen lau mutil eta hiru neska.
Giza portaera agerian geratzen
zen, eguzkiak gogor jotzen zue-
nean, pixa egin behar zenean...
Atera ziren gauzak. Esperientzia
polita izan zen. Bertan ezagutu
nuen Dina. Medikuntza ikaske-
tak utzi eta Tolosara etorri zen.
Kirola egiten hasi zen hogeita bi
urterekin: bizikleta, eskia, pira-
gua, triatloia...

Zer izan zen Dina zuretzat?

Hamabost urteko elkarbi-
zitzia izan zen. Gauza asko elkar
-banatzen genituen, baina oso
independenteak ginen. Berak
ere bizitza bakarra dela ikusi
zuen; inposiziotik gutxi duela,
esaten dena baino norberak
aukeratzeko tarte handiagoa
dagoela, alegia. Ez genuen bi-
zimodu erraza izan, baina in-
tentsoa bai. Lagun bat hiltzeak
ez du pozik ematen, baina bera
gustuko zuen zerbaitetan gal-
du zela jakitean, gaitz erdi. Jen-
deak heriotza toki eta une jakin
batean kokatu beharra dauka,
eta itsasoak guzti hori lurrun-
tzen duenez, jendea ebiden-
tzia onartu gabe denbora luze
galdezka aritu zen ez ote ziren
salbatuko.

Eta Angel Ortiz?

Angel oso laguna dut, ia
anaia siamesa da niretzat. Oso
desberdinak gara, baina aldi
berean osagarriak. Ordu asko
bizitu ditugu elkarrekin. Mo-
mentu oso onak eta txarrak
pasa ditugu. Azken aldi hone-
tan nik bidaiatzen jarraitu dut;
bera berriz, hemen ibiltzen da
motoak konpontzen. Oraindik
ere elkarrekin moldatuko gina-
teke.

HABEn sorreran helduei eus-
kara irakasteko funtzionario
plaza eskuratu zenuen...

Duela hogeita hamar urte
beste giro mota bat zegoen.
Hondarribiako euskaltegian
gauza politak egin genituen.
Halako batean, polizia batek
euskara ikasteko izena eman
zuen. Gorabeherak izan ziren,
eta goitik agindu ziguten lan-
nean hasi behar genuela, bes-
tela kale gorrira joango ginela.
Asanblada bat egin genuen:
Laurogeitik hirurogeita bost la-
nean hasi ziren, eta beste bost
lagun kaleratuak izan ginen.
Baina horrekin batera baze-
goen halako desengainu pun-
tu bat: Unibertsitate mailako
ikasketak zituen jendea etor-
tzen zitzaigun euskara maila
zero azpitik zuena. Jende hau,
ordura arte ezertxo ikasi gabe
egotea ulergaitza egiten zi-
tzaidan. HABEn lan egin nituen
hilabete apurretan jaso nituen
nire bizitzako soldata finko ba-
karrak.

Euskaltzalea izanik nola ikus-
ten duzu euskararen bidaia?

Euskara irakasten eman-
dako denboraz oroimen oso
onak ditut. Nik omenaldia eus-
kara transmititzen jakin zuten
aurreko belaunaldiei egingo
nieke. Galtzaundi sortu zene-

ko garai polita izan zen. Baina
gero, ilusioa eta militanteak
galdu egin ziren. Euskalgin-
tzatik gertuago nago nazio-
gintzatik baino. Aborigenagoa
naiz abertzale baino. Lehen
euskarak lanak ematen zizki-
gun eta gaur egun euskarak
lan eta soldata on ugari ema-
ten ditu. Alidz, ezagutzatik
erabilerara huts egin dugu.
Tolosan bost mila boto aber-
tzale izanik, ehun eta berro-
gehita hamar bazkide tolosar
daude Galtzaundin. Zer dela
eta? Bertako abertzalea eus-
kara ikasteko gai izan ez bada,
nola eskatuko diot etorkin bati
euskara ikas dezan? Euskal
munduarekin oso lotuta eta
aldi berean oso defraudatuta
sentitzen naiz.

Nola ikusten gaituzte euskal-
dunak kanpotik?

Batzuek esango dute he-
mengo guztia manipulatu
egiten dutela, baina guk ere
manipulatzeko aitzakia handia
ematen diegu. Hogeit urtetan
gurekiko jarrera txarrerako al-
datu da.

Artzain Eskolan ere aritu
zara...

Aita artzaina izan zen eta
lehengusuak ere baditut artzai-
nak. Munduan artzain kultura
handia dago. Dromedarioak,
llamak edo jakak zaintzen di-
tuztenak ulertu nahian eta he-
mengo artzaintza hobeto eza-
gutu nahian, Arantzazun hiru
hilabete eman nituen ikasten.
Ondoren lehengusu batekin
egin nituen praktikak.

Zein egitasmo dituzu?

Gurasoak zaindu behar
ditut. Bestetik, badut egitas-
morik esku artean eta noski,
bidaiatzen jarraituko dut. ☺



Amaia Etxetxia
Nutrizio aholkularia

Abuztua joan zaigu eta udazkena gerturazten doa. Temperatura aldaketak, gure gorputzean aldaketa fisikoak eta animikoak sortarazten ditu. Urtaro honetan eguzki ordu gutxiago izaten ditugu. Egoera honekin batera, berriro presak eta estresak etortzen dira eta gure organismoan izugarriko eragina dute.

Koxk!

Jan, estresik gabe

Hilabete hauetan pertsona askok digestio pisuagoak izaten dituzte, nekea, bitalidade eza... Aldaketa fisiko hauetaz gain, tristura eta makalaldiak ere agertu daitezke. Eta egoera hauei aurre egitea posible da? Nola? Ba sasoi honetan agertzen diren elikagaietaz gozatuz.

Urtaro aldaketak ematen direnean, gure organismoak askotan elikagai desberdinak eskatzen dizkigu. Hori dela eta, ez da harrizkoa udazkeneko lehen hozteekin janari beroagoak eta pasta edo ogia jateko gogoia edukitzea.

Gluzidoak edo karbohidratoak, beharrezkoak izaten dira gure gorputzak temperatura berriei aurre egiteko. Esaerak dion bezala, gure gorputza jakintsua da, eta komeni da kasu egitea. Naturak, hilabete hoztetzan eskaintzen dituen elikagaiak aproposak dira aipaturako egoera hauei aurre egiteko.

Baina beti gauzak ez dira hain zehatz ematen, ezta? Saiatuko gara aztertzen zergatik egoera desberdinen aurrean modu batera edo bestera erantzuten dugun.



Gure organismoa oso sistema komplexua da, eta lehenengo pausoa, garunak duen zeregina aztertzea izango da, bera baita irenketaren erregulatzaile nagusia. Hipotalamoan bi gune kokatzen dira: gosearen eta asetzearen guneak. Beraien funtzioa erabakiorra da gure elikadurarekiko portaeran.

Garunak seinale desberdinak detektatzen ditu eta horren arabera, sustantzi (peptido) desberdinak jariatzen ditu, gure jateko gogoia handitu edo txikituko dutenak. Adibidez: luzaro jan gabe bagaude, garunak sustantzi horien ekoizpena handitzen du gure jateko gogoia handitzeko (adibidez, Y neuropeptidoa). Gauza bera gertatzen da estresaren aurrean. Honek argituko luke zergatik estresatugoak gaudenean, gehienetan, gehiago eta okerrago jaten dugun.

Baina kontrakoa ere ematen da; gure organismoak oreka bat bilatzeko bere bideak dituen bezala, beste sustantzi batzuk (adibidez, koleizistokinina) jariatzen ditu gure jateko gogoia asetzeko, bazkari on baten ostean gertatzen den bezala.

Ikerketa asko egin dira guzti honen inguruan, elikadurarekiko portaeran arazoak dituztenei lagundu ahal izateko. Zenbait

pertsonak, gosearen eta asetzearen seinale fisiologiko hauei erantzuteko ahalmena nolabait galdu egiten dute. Honen ondorioz, kanpoko eraginaren arabera jaten dute, adibidez, eguneko ordua, gogoetak, sentimenduak, bizitza soziala edo lagunartea.

Gure bizimoduaren erritimoak ere gutxi laguntzen du lan honetan. Ikusi dugun bezela, asetzeak denbora bat behar du, zenbait fenomeno jarraian ematen baitira. Zutik, presaka eta lasaitasunik gabe jaten badugu, urdailetik eta hesteetatik garunera iritsi behar duten seinale guzti horiei ez diegu nahikoa denbora ematen asetuta sentitu ahal izateko.

Beraz, mantso jatea oso garrantzitsua da, eta noski, gure urdailak ere eskertuko du.

Galtzaundi itxura berriarekin itzuli da oporretatik

Azala ez ezik, mamia ere berritu du Galtzaundik

Kanpotik eta barrutik, goitik-behera itxura-aldatzeko baliatu ditu aurtengo oporrak Galtzaundi hamabostekariak. Diseinu berriak, aldizkari frexkoagoa, erakargarriagoa eta irakurterragoagoa lortu nahi du. Zuek esan beharko duzue helburua lortu den hala ez.





 Galtzaundi 307
09ko irailak 4

175. alean estreinatu zuen Galtzaundik azkeneko diseinua. Apirilean kaleratu zen berriaz, Tolosaldeko herri aldizkariaren 300. alea. Orduan jabetu zen Galtzaundiko erredakzio batzordea, 125 ale igaro zirela azkenekoz aldizkariaren look-a aldatu zenetik. 300 kandela piztu beharrean, diseinu berria oparitu die Galtzaundik irakurleei. Goitik diseinu enpresak egin ditu diseinu eta maketazio lanak.

Ikasturte berriarekin batera estreinatu du Tolosaldeko hamabostekariak diseinu berria. 307. aleko azala eta mamiak ez du zerikusirik oporretara joan aurretik kaleratu zen 306. zenbakiarekin. Azala, edukien maketazioa, publizitatearen kokapena... berplanteatu egin dira, helburu batekin: Aldizkari erakargarriagoa eta irakurterrazagoa lortzea.

Galtzaundi berrian, argazkiek garrantzia handiagoa izango dute. Irudien eta testuen oreka aurkitu nahi da, orrietan airea sartzen utziz, irakurketa atseginagoa izan dadin.


Edukien antolaketa aldiz, orain artekoaren oso antzekoa da: Iritziaren leihoa, normalizazioa, erreportia, elkarrizketa, eskualdeko albisteak, kultura eta kirol saltsa ataletan sailka-

tuko dira aldizkari bakoitzean jorratutako gaiak. Garrantzia berezia eman zaie, erreportia nagusiari eta elkarrizketari. Honen arrazoia, Galtzaundik gaiak luze eta zabal jorratearen alde egindako apustua da.

Aipatutakoez gain, irakurleak berrikuntza txiki batzuk ere igarriko ditu Galtzaundi berrian.

Kolaboratzaile berriak
Galtzaundik leiho bat zabaldu dio informazio praktikoari. Atal berri honen bidez, elikadura, internet, mendizaletasuna eta euskal literaturaren berri jasoko duzue. Alor bakoitzean adituak diren kolaboratzaileek beteko dute atal hau, euren artean txandakatuz.

Elikadurari buruz hitz egingo du Koxk atalean Amaia Etxetxipia nutrikzio aholkulariak. Jone Gorostazu irakurle porrokatuak berriz, euskal literaturak emandako obrak proposatuko ditu, Irakurlearen begietatik tartean. Eskualdea eta bere inguruak ezagutzeko ibilaldiak ere ekarriko ditugu Bidean atalera. Josu Iztueta arduratuko da zeregin horretaz. Azkenik, Internet-ek ere izango du txokoa Txarli Gesteira alegiarraren eskutik. Bera, internet-en topatutako web orri interesga-

 Galtzaundi berrian, argazkiek garrantzia handiagoa izango dute. Irudien eta testuen oreka aurkitu nahi da, orrietan airea sartzen utziz, irakurketa atseginagoa izan dadin.

rienei buruz, eta teknologia berrien gainean jardungo da Zintzilik atalean.

Normalizazio atalak ere badu berrikuntza bat: Orri bat izatetik, bi orri izatera igaro da. Galtzaundi Euskara Taldeko normalizazio sailak burutzen dituen egitasmoen berri emateaz gain, euskararensemaforoa.blogspot.com blog-ean zintzilikatutako ekarpenik interesgarrienez zako tartea zabalduko du. Bestalde, Euskara Taldeko kultura sailak antolatutako ekintzen berri ere bertan emango da.

Aldaketa hauetaz gain, badira berrikuntza txiki gehiago ere. Baina ez ditugu denak agerian utziko. Hasi orriz-orri, Galtzaundi berria arakutzen, ea zez aurkitzen duzen!


URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK
Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa


Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak
Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916


ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK
Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Eneko Lasa

“Esaten da zailagoa dela munduko txapelketara joatea hura irabaztea baino”

Amaia Goikoetxea

Hamabost urte baino ez, eta aurten bigarren aldiz hartu du parte Munduko Arrantza Txapelketan. Parte hartu, eta brontzezko domina lepotik zintzilik duela itzuli da etxera gainera. Eta Txekian jokatu den mundialean parte hartu aurretik, datorren urtean Eslobakian ospatuko denerrako txartela ere poltsikoratu zuen arrantzale alegiarak.

Munduko txapelketan parte hartu duzun bigarren aldia izan da aurtengoa zuretzat. Lehenengo urteko esperientziak beste segurtasun bat emango du, ezta?

Bai, esperientzia urte bakarrekoa izanda ere, ematen du. Urduritasuna ere txikiagoa da, jada badakizu kontua nondik nora doan, lasaiago zoaz.

Txekian ospatu da aurtengoa.

Bai, Chotebor-en. Hirurogehitu hamar partehartzaile ginen, hamahiru taldetan banatuta, hamahiru selekzio. Gu sei laguneko taldea joan ginen, sei eta kapitaina: taldeko bi kataluniarrak ziren, Galiziako bat, Valentziako beste bat, palentziarra bostgarrena, eta ni.

Eta gidari lanetan kapitaina.

Hori da. Lehiaketan ari garen bitartean lagundu egiten digu. Arrantzan ari zaren lekura joaten da, bera baita une horretan zurekin hitz egin dezakeen bakarra, eta amuarraina errazago harrapatzeko non kokatu esaten dizu, kanpotik beti hobeto ikusten baita. Gidatu egiten zaitu.

Zein helburu zenuten aurtengo munduko txapelketari begira?

Podiuma egitera joan ginen, baina oso zaila geneukan. Bagenekien gutxienez sei talde

gu baino hobeak zirela: Txekiako bi taldeak, Eslobakiako beste biak, Poloniakoa eta Frantziakoa hobeak ziren, hori ziur genekien. Baina saiatu ginen, hasieratik lan ona egin genuen, eta hirugarren postua lortuta gustora egoteko moduan gaude. Txekiarrak izan ziren txapeldunak, eta frantziarrak bigarrenak.

Zenbat froga burutzen dituzue?

Bost, horietatik lau errekan eta bat lakuan. Erreka ezberdinetan egiten da arrantza, eta lakukoa, berriz, guztietan zailena izaten da. Txekiako kasuan ere oso zaila izan zen, nik ez nuen ale bakar bat ere harrapatu, eta asko izan ziren nire egoeran geratu zirenak.

Zergatik du lakuak zailtasun hori?

Kasu honetan, adibidez, lakuan amuarrainak bazeuden baina ez ziren jaten ari... Modalitate ezberdinak dira, arrantza ezberdin egiten da. Gainera, barkutik egin behar genuen arrantza, ez lurretik, eta hori zailagoa da.

Zer nolako giroa egoten da mundialean?

Egia esan, aurtengoa ez zait gehiegi gustatu, partehartzaileak hotel ezberdinetan baixeuden. Beste guztia oso



ondo egon da, antolakuntza, errekak..., baina giroa... Egia esateko, jende gehiena gure hotelean zegoen eta nahiko giro onean ibili ginen, baina ez geunden denak batera, eta hortxe egon zen akatsa. Denak batera egonda, festa gehiago.

Jende asko ezagutuko da horrelakoetan, ezta?

Bai, pila bat. Lagun giroan ibiltzen gara. Noski, arrantza egiterako garaian nabaritzen da lehiakortasuna, baina behin lana bukatutakoan ez, oso giro polita egoten da.

Ba al dago herrialderen bat beziki ona denik?

Bai, Frantzia eta Txekia. Beti goran egoten dira.

Eta zergatik da hori, tradizio kontua again?

Oso onak direlako. Kapitainek batera eta bestera eramaten dituzte arrantzaleak entrenatzera, Frantziako Pirionetara esaterako, asko mugitzen dira. Entrenamendu gehiago eta serioagoak izaten dituzte. Guk berriz bakarka joan behar izaten dugu... Haiek hobeto antolatuta dituzte entrenamenduak. Gero, mundialetara joateko hautaketa prozesua ere ezberdina da. Demagun, hamar arrantzaile joaten direla kapitainarekin asteburu batez entrenatzera. Kapitainak arrantza egiten ikusten ditu eta hark erabakitzen du hamar horietatik mundialera joango diren sei lagunak zein izango diren. Hemen, berriz, lehiatu eta irabazi egin behar duzu, lehiaketan bidez lortu behar duzu sailkapena. Nire ustez Frantziakoa egokiagoa da. Hemen lehiaketaren egunean kasualitatez egun txar bat tokatzen bazaizu izorratuta zaude, ez daukazu



aukera gehiago. Frantziarrek bezala eginez gero, gehiago demonstratu dezakezu.

Zuk datorren urteko mundialetarako sailkatzea lortu duzu.

Egia esan, ez zen oso erraza izan. Sailkapenaren bila joan nintzen, Espainiako txapelketan ezer ez eginda ere, mundialerako sailkatu nahi nuen, eta horixe lortu nuen. Sei sailkatu ginen, eta berrogehi partehartzaile baino gehiago ginen. Esaten dute zailagoa dela mundial batera joatea hura irabaztea baino. Beti sailkatu egin behar duzu, hasteko, Gipuzkoa mailan, gero Euskadin, gero Espainiakora zoaz eta han mundialerako sailkatu behar duzu.

Goi-Mailako Lehiaketan diharduzu pare bat urtetik hona. Zer dakarkio horrek arrantzale bati?

Mundialetara joateko aukera, bestela ezinezkoa da. Mundial batera joan nahi baduzu, hasteko Goi-Mailako Lehiaketan sartu behar duzu, eta behin hor egonda mundialetarako sailkatzea lortu behar duzu. Horregatik esaten da oso zaila dela mundial batera joatea.

Eta Goi-Mailako Lehiaketan sartzeko?

Estatu mailan hamasei onenen artean geratu behar duzu. Goi-Mailako Lehiaketan egoiteak zer eskatzen dizu eguneroko bizitzan?

Mundialetara joan nahi baduzu gehiago entrenatu behar duzu, baina zure asmoa Goi-Mailan mantentzea soilik bada, exijentzia ez da hain bestekoa. Nik nahihago dut, ordea, egunean ordu pare bat gehiago sartu, gehiago entre-

natu eta mundialetara joan, zazpigarren geratu eta joan gabe geratu baino.

Zenbat entrenatzen duzu?

Udan egunean lau ordu behintzat bai, gutxienez sartu behar ditut lau ordu. Leitzaran irekitzen dutenean neguan harantza joan, eta gero udan Oriara etorri... Ahal dela urte guztian entrenatzen dut.

Eta datorren urtera begira, zer?

Bada, oraindik arrantzale on asko geratzen den arren, beste asko joan egin dira, juniorretatik seniorretara igo baitira, eta momentu hori aprobetxatzen ahalegindu nahi nuke, ea Espainiako txapelketan zerbait egin daitekeen, eta berriz ere bi urte barruko mundialerako sailkatu.


irakurri entzun Ikusi



Mundua lo dagoenean
Patxi Zubizarreta
Txalaparta argitaletxea

Mundua lo dagoenean ez da nobela bat, ezta poema liburu bat ere. Irratsaio bat da, eta bertan, gaueko ahots atsekabetuek hartzen dute hitza. Liburu irakurterraza da, arina. Baina horregatik ez da sinplea. Egileak hausnarketarako tartea ere hartzen du. Amaierak ezustean harrapatuko du irakurlea.

Live in London
Leonard Cohen



2 CD eta DVD batek osatzen dute Live in London bilduma, Leonard Cohen kantugilea burutzen ari den biraren iragarpen gisa iritsi zitzaiguna. Bertan bere ibilbide luzeak eman dituen 26 maisulan jasotzen dira, dotore bezain zirraragarriak. Kanadarra zuzenean entzun nahi izanez gero, hilaren 17an izango dugu Barakaldoko BECen.

The Reader
Zuz: Stephen Daldry

Akt: Kte Winslet, Ralph Fiennes, David Kross



Filme honek Bigarren Mundu Gerraren osteko Alemaniara garamatza. Michael mutiko nerabeak Hanna ezagutuko du. Bien artean sexu harremanetatik haratago doan erlazioa sortuko da. Elkartzen direnero, emakumeak irakurtzeko eskatzen dio gazteari. Egun batean Hanna desagertu egiten da. Protagonista zuzendibeko ikaslea dela maitemindu zuen emakumea topatuko du nazien aurkako epaiketa batean: Hanna akusatuen aulkian dago.

Irailaren 4tik 18ra arteko hitzorduak

Musika

Irailak 5-Izaskun auzoko festak
- 23:00; Zura, Brahman (Japonia) eta Bad Sound Sistem taldeen kontzertuak.



Saharar festa 2009

Irailak 4 - Plaza Berrian
- 16:00; Haimaren irekiera. Bertan tea dastatu eta hennarekin jolastu ahal izango da.
- 17:00; Haur jolasak
- 19:00; Ekitaldi politikoa. Fren-te Polisarioko ordezkariak parte hartuko dute.
- 20:00; Uzkudun ahizpek trikitixa emanaldia eskainiko dute.
- 21:00; Herri afaria. Txartelak 645.710.789 telefonoan eskatu behar dira. Helduak 15 euro, haurrak 10 euro.
- 22:30; Kontzertua Estrella Polisaria saharar taldearen eskutik.

Elduaingo Andra Mari Jaiak

Irailak 4
- 17:00; Suziriak jaietako hasiera emango dio. Ondoren, puzgariak eta tailerrak herriko txikientzat.
- 21:30; Herri afaria Urdelar bil-tokian.
- 00:00; Kontzertuak: Bizardunak eta Des-kontrol taldeekin. Bi kontzertuen artean, bikote baten streap tease ikuskizuna izango da.
- Oharra: Egun honetan autobus zerbitzua egongo da Tolosatik Elduainera 23:30ean eta Elduaindik Tolosara 04:30ean.

Irailak 5
- 17:00; Ibilaldiak herrian zehar zaldi zein karroan.
- 18:30; Patata tortilla dastaketa herriko plazan, sagardo eta ardoz lagundurik. Bitartean bertso eta trikitixaz alaituriko emanaldia.
- 00:00; Abiba diskojaia.
- Oharra: Egun honetan autobus zerbitzua egongo da Tolosatik Elduainera 23:00ean eta Elduaindik Tolosara 04:30ean.

Irailak 6
- 09:45; Meza nagusia, Santa Katalina elizan. Ondoren, hamaitakak: Sardinak, txakolina eta ardoa.
- 12:30; Pilota partidua herriko pilotarien eskutik.
- 18:00; Kale antzerkia Trapu Zaharraren eskutik. Ondoren, Udaberri dantza taldearen emanaldia herriko plazan.

Irailak 8
- 11:00; Meza nagusia Santa Katalina elizan. Ondoren hamaitakak Kontzeju tabernan.
- 16:30; Antzerkia herriko umeen eskutik. Ondoren, Falkoneria ikuskizuna.
- Azkenik, Gorriti eta bere animalieki jaietako amaiera emango zaie.



Alkizako jaiak

Irailak 4 (Mozorroen eguna)
- Iluntzean kalejira eta poteoa egingo da.
- 21:00; Barrikotea.
- 23:00; Bertso saioa: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Unai Elizasu
- Ondoren, Bidebatez taldearen erromeria.

Irailak 5
- 11:00; Herriko txirindularientzako lasterketa.
- 17:00; Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen omenezko herrikirol saioa: Alkiza Anoetaren aurka. Ondoren, sagardo dastaketa.
- 23:00; Herrikirol saioa aizkolari eta harrijasotzaileekin.
- Ondoren, kontzertuak: 3 gabe

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzutik Ongi etorri guztioi 2009-2010 ikasturtera.

Ikasturte berriari begira, eskualdeko prestakuntza eskaintza erakargarria ezagutu nahi baduzu, informazio osoa "clik" batean lor dezakezu:

<http://www.ikastn.com>

Zer aurkitu dezakezu webgunean?

- Prestakuntza eskaintza osoaren informazio zabal.
- Prestakuntza erakunde eta elkartei buruzko informazio zabal.
- Bizitza osoan Zeharreko ikaskuntzarekin lotutako albiste, jarduerak eta loturak: eduki anitzekoak.

Izena eman eta jaso abantailak...

- Ikastaroen informazioa zure mugikorrean jasotzeko aukera.
- Prestakuntzarekin lotutako boletín elektronikoa jasotzeko aukera.

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Google tresnak, Sare Sozialak eta Skype	2009.09.07	6
Microsoft Excel 2003	2009.09.28	45
Informatika hastapena eta internet	2009.10.05	30
Photoshop bidezko argazki ukituak	2009.10.17	20
Microsoft Word 2003	2009.11.02	20
Microsoft Access 2003	2009.11.02	45



2, Peachi Joke, Gabondantxari, DJ Moho eta DJ Xabat.

Irailak 6

- 10:00; Meza nagusia.
- 12:00; Txirringuluri igoera herrikoia Anoetatik. Jarraian txakolin dastaketa eta sardina jatea.



- 16:00; Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolatuta.
- 18:00; Asto lasterketa mozo-rrotuta. Ondoren, Beteranoen Arteko XVIII Pelota Txapelketaren Finala. Ondoren, erromeria.

Irailak 8

- 12:00; Meza nagusia. Ondoren, gaztetxoentzat toka txapelketa.
- 14:00; Jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean.
- 17:00; Brasilgo musika eta kulturaren tailerra Edson Goyaren eskutik.
- Azkenik, toka txapelketa herrikoia jaiari amaiera emanez.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 4 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 9 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Astelehena, 14 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Larunbata, 5 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Osteguna, 10 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Astearte, 15 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Igandea, 6 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 11 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 16 Ugarte MªT. Euskal Herria, 46 Ibarra
Astelehena, 7 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Larunbata, 12 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 17 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Astearte, 8 Tolosa Mª Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 13 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 18 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(larrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Urreamendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdiak, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	943 651 425
Medikua	943 653 329	943 673 022
Irura	943 690 720	943 675 320
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, larriald.	943 006 800	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa
		Medikua
		943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**

*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

Salgai

- Kotxe bat salgai BMW 330 D full equipue 18.000 euro. 629 52 51 50.
- Kotxe bat salgai (urte 1) 14.500 km. Opel Meriva Cosmo 667 232 015
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaiotze berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hamaka, seaska,...). 653 733 675



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Ikasturte berriak aldaketa garrantzitsuak ekarriko dizkizu. Horrek ezinegona eragiten badizu ere, urduri ez jartzen saiatu behar duzu. Soseguz jokatzeko baduzu ondo joango zaizkizu gauzak.



tauro

Apirilak 22-Maiatzak 21
Ahoa ireki aurretik bi aldiz pentsatu. Ongi aztertu nori kontaktatu diozun zer. Hanka sartze batek egoera deseroso batera eraman zaitzake. Medikuari bisita egin beharrez aurkituko zara.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Udaran irabazitako kiloak jaistea ongi dago, baina zure elikadura zainduz. Ikasturte hasiera gogorra izango da, eta osasun betean egon behar duzu honi aurre egiteko.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Pentsakor ibiliko zara datozen egunetan. Ez zaizu gaizki etorriko, aurretik hartu behar duzun norbidea erabakitzeke. Zaindu lagunak, beraien beharra izango duzu eta.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Uda elkarrekin igaro ondoren bakarrik egoteko premia dauka, baina ez dizu esan nahi mindu ez zaitez. Hartu iezaiozu aurre, eskertu egingo dizu. Diru estra bat irabazteko aukera.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Orain da arauak jartzeko garaia. Gauzak ondo joatea nahi baduzu hasieratik gauzak argi utzi behar dituzue. Aurreikusten ez zenuen gastua. Isun bat izan liteke.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Etxeko giro nahasia baretzeko, bertan ahalik eta denbora gutxien igaro beharko zenuke. Etxetik kanpo denbora betetzeko ikastaroren batean eman dezakezu izena. Begiratu papearak, zerbait gaizki daukazu.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22
Aurretik izandako esperientziak kontutan hartzea ongi dago, baina ahaztu iraganeko mamuak. Ez izan beldurrik eta utzi hegialak libre. Izarrak zure alde izango dituzu etapa berri honetan.



sagitario

Azaroak 23-Abenduak 21
Orain duzu mendekua hartzeko aukera paregabea. Jokaera horrek ordea zure irudia zikinduko luke. Tentagarria bada ere, duin jokatzeko gomendatzen dizu horoskopoa.



capricornio

Martxoak 21-Apirilak 21
Diru estra bat irabazteko aukera sortuko zaizu. Egia da eskainiko dizuten koporua lagungarri egingo zaizula, baina denboraz ere estuago ibiliko zara. Ongi pentsatu, estresak kalte handia egiten dizu.



aquario

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Uretara jauzi baino lehenago hobe izaten da oineko hatz txikia sartzea uraren tenperatura frogatzeko. Ez joan azkarregi. Presa ez da lagun ona zuretzat. Lasai, espero dituzun emaitzak iritsiko dira.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Askotan ez dira ingurukoak izaten errudunak, norbera baizik. Akatsak onartu eta hotz juzgatzen ikasten baduzu lagunaren estimua irabaziko duzu. Ez jendea aspertu zure oporretako argazki eta istorioekin.



maite estetika eta kosmetika zentroa

Diodo Laserra:

Azken generazioko Diodo Laserra, ilea edo biloa kentzeko eraginkorra.

- Erabateko eragina.
- Klimikoki frogaturiko depilazioa.

Mikropigmentazioa:

- Akats txikiak konpontzen ditu eta zure bertute onenak nabarmentzen ditu.
- Ezpainak, bekainak eta betazalak (Eye Liner).

Gabonetako oparia:

Jendea zorientsu sentitzea nahi duelako oparietako bonoak sortu ditu Maite estetika eta kosmetika zentruak. Bonoekin zure lagun maiteei tratamendu estetiko aurreratuenak eta produktu kosmetikorik hoberenak oparitu ahal dizkiezu.

Gabon hauetan oparitu osasuna eta zorientasuna!

Tfnua. 943 670338 | Leitza kalea z/g Tolosa

Maite
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
ondo doakizu.

MODALITATEAK ETA HIZKUNTZA

Lanak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izango dira euskaraz.
Autorearen izenik ezin da jarri aurkeztutako komikian. Gutun-azalean aurkeztuko dira lanak, sinadura eta izenik gabe. Izenburu batekin. Autorearen datuak (izena, telefono zenbakia, lanbidea, adina, helbidea eta komikialariaren izena) beste gutun-azal batean aurkeztuko dira. Izenburu berarekin. Bigarren gutun-azal hau lehenengoan sartuta aurkeztuko da.

SARIAK

SARIAK 12 URTETIK BEHERA:

Komiki bilduma eta marrazketerako materiala.

SARIAK 12 URTETIK 18 URTERA BITARTEAN

Lehenengo: 400.00€ eta argitalpena papelean.

Bigarrena: 200.00€ eta argitalpena papelean.

SARIAK 18 URTETIK GORA

Lehenengo: 600.00€ eta argitalpena papelean.

Bigarrena: 400.00€ eta argitalpena papelean.

Egile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du.

- Epaimahai aditu batek lanik onenak aukeratuko ditu.

Lehen saria eskuratzen duenak nahitanahiez etorri beharko du sariak banatzeko ekitaldira, pisuzko arrazoren bat ez bada.

Saritutako lanekin aldizkari bat kaleratuko da koloretan.

SARI BANAKETA

Sari banaketa 2009ko abenduaren 11ean arratsaldeko 19:30ean izango da Ibarako Kultur Etxean.

Epaimahaiaren ustez lanek ez badute eskatutako kalitatekin, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guzti hauek onartzen direla esan nahi du.

Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago lortzeko deitu 943655004 telefono zenbakira, edo idatzi kultura@galtzaundi.com helbidera edo sartu www.galtzaundi.com web gunean.

NOIZ ETA NOLA AURKEZTU

Lanak Galtzaundiko egoitzan aurkeztu ahal izango dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira:

Galtzaundi Euskara Taldea
"Ibarra Galtzakomik" komiki lehiaketa
Nafarroa Etorbidea 6 behea
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko epea 2009ko irailaren 10etik azaroaren 10era izango da. Epearen azken egun honetan postetxean aurkeztutako lanak ere onartuko dira (zigilu-markak ziurtatuko du data hau).

Saritutako lanekin eta komiki lehiaketan jasotako lanekin erakusketak bat antolatuko da urtarirlean Ibarako Kultur Etxean. Erakusketak hiru armaitu ondoren, 30 eguneko epearen barruan, sarituek ez diren autore guztiek hartu ahal izango dituzte haien lanak. Epe hau bukatu eta gero, eskatuak izan ez diren lan guztiak Galtzaundiren artxibora pasatuko dira.

II. IBARRA
GALTZA
KOMIK
KOMIKI LEHIAKETA
2009



Ibarako
Udala



galtzaundi
EUSKARA TALDEA

Aitzol
Udal
Euskaltegia

MARBU

AURREZ AURREKO TALDEAK
MAILA GUZTIAK
AUTOIKASKUNTZA
TITULU HOMOLOGATUAK

irailaren 18 arte
bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00



Rondilla 34-B, 3.a

20400 TOLOSA

tel. **943651006 - 943652343**

www.udaleuskaltegiak.net

aitzolue@tolosakoudala.net